

ADUNA

- UEMAko 32. ki-dea bihurtu da

KULTURA

- Larramendi Bazkunaren V. urtemuga

ELKARRIZKETA

- Eresargi abesbatza ahotsen topagune


1997ko abenduaren 12. 70. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

Familia eredu ezberdinak

Andoaingo Istituitza-Txiki baserriko familia. 1927 urtea.



ORDULARI
BITXITEGI

IRULEGI



☎ 59 07 57

KOLTXOI DENDA
ARRATE PLAZA 9



☎ 59 07 56

ETXEKO
APAINKETAK
ETA
KOLTXOIAK

Lentzeria,
ohial eta
bainujantziak

Arrate
Berri

☎ 59 44 83


GOZOTEGIA
IZOZTEGIA



INAXI

☎ 59 03 03

AGUSTIN LEITZA 3 eta 5



JOSE GALPARSORO

BALDOSAK - GRESA - AZULEJOAK
ERAIKITZEKO MATERIAL ETA
TRESNERIA



ERAKUSKETA: Kaleberri, 38 behea
Telefonoa eta Faxe: 59 25 55
Etxekoa: 59 18 91
BILTOKI ETA BULEGOA: Borda Berri Poligonoa 5.
Telefonoa: 30 01 45
ANDOAIN - GIPUZKOA

KALITATEA ETA
SEGURTASUNA ZURE
ZERBITZURA

URPA

AUTOBUSAK

☎ (908) 77 56 48 (24 orduak)

☎ 59 38 05 (Garajea)



Sorabilla auzunea, 53. Pol.
ANDOAIN (Gipuzkoa)

OLASAGASTI


Loradenda

Muxu batez...
Olentzero

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Kalenagusia, 11 ☎ 30 06 20 ANDOAIN

Foto



Echarri

- ❖ ORDUBETEAN ERREBELATUA
- ❖ ARGAZKI ESTUDIOA
- ❖ LEHEN JAUNARTZEAK
- ❖ EZKONTZA ERREPORTAIK
- ❖ MARKOZKETA
- ❖ ANPLIAZIOAK BEREZIKI

.....
Elizondo plaza, 2 atzealdea - ☎ 59 41 48 ANDOAIN

Juan de Urbietta, 8- ☎ 55 29 39 HERNANI

Kale Nagusia, 17 - ☎ 36 14 84 LASARTE

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia
"Presa Eolikoa Onddin".
2. GALDEZKA.
Zure ustez, nork irabaziko du bertso txapelketa?
3. ADUNA.
Euskararen kipeletik txost!
- 4-5-6. ANDOAIN.
«Askapena»ren aste solidarioa
Golf eskola Goiburun
7. ASTEASU.
Bernardo Atxagaren omenezko ataria
- 8-9. BILLABONA.
Egoera larriei aurrez antzemateko ekimenak
«Senideak» elkartearen martxa
10. ZIZURKIL.
«Danena» Espainiako alterofilia txapelketako hiru-garrena.
11. ENPRESA.
«Zirauna» kirol jantziak egiten
- 12-13. ERREPORTAIA.
Familia eredu ezberdinak
- 14-15. ELKARRIZKETA.
«Eresargi» abesbatza ahotsen topagune
- 16-17. KULTURA.
Manuel Larramendi Bazkunaren V. urtemuga.
Adunako aste kulturala
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. BETERRIKO LIBURUA/LEHIAKETA
20. AGENDA

PRESA EOLIKOA ONDDIN



JOSEBA ERKIZIA

Jakin berria dugunez, Urnietako Udalak presa eolikoa jartzeko asmoa du Onddin (barkatuko al didate euskaltzainek Oindi ez idaztea!).

Presa eolikoa zer den galdetuko du baten batek. Bada, funtsean, haizearen indarrak energia sortzeko sistema berri bat da. Azken bost-lada honetan ohitu egin gara, Nafarroan eta, parke eolikoak ikusten. Mendi gainetan lerroan zabaldutako "haizeerrota" horiek ez bezalakoa da, ordea, presa eolikoa.

Imajina dezagun pankarta erraldoi bat, hogeita hamabi metroko bi zutabetan lotua eta ehun eta hogei metro zabalekoa. Irudizko pankarta horren oihalarren tokian pala eta kable ilarak egongo dira behetik gora. Zutabetan berriz, poleak eta alternadoreak, haien mugimendua posible egiteko. Gero, haizeak eragindako pala horien indarra energia elektriko bihurtuko du transformagailu batek. Horra hor Onddiko presa eolikoa.


Cauza jakina da ingurugiroarekiko kezka eraginda, energia iturri berriztarriak bultzatzen ari direla aspaldion ekologistak. Eta horien artean, batez ere eolikoa edo haizearena: garbia, kutsadurarik gabea eta monopolizatzen zaila delako. Eragozpen nagusi bat du, ordea: paisaia duen eragina. Instalazio eolikoek mendi tontorrek behar dituzte eta aire zabalean, nabarmen, jani behar dira. Euskaldunon Egunkaria-koei Onddirako proiektuaren egileak esan zien bezala "haizea airean baitago". Diotenez, Urnietako Udalak duen elektrizitate gastua estaltzeko adina indar sortuko luke presa eolikoak, energia iturri tradizionalak dituzten gainerako ondorio izadirako kaltegarriak ekarri gabe. Beraz, eragozpen nagusi bat eta abantaila asko.

Seguru asko, eztabaida sortuko du proiektuak. Eta eztabaida onargarria izango litzateke garaiz eta arrazoiz egingo balitz. Batek arazoak, berez, kontoputzen errazagoak direlako handitzen utzi baino lehen heltzen bazaie. Eta bestetik, gure gizarte aurreratu honet bere baitan duen baina, aitzitik, ikusi nahi ez duen arazo bati buruz eztabaidatzen lagunduko ligukeelako. Izan ere, garbi dago ez dugula energia nuklearrik nahi, ez kutsadura larriki lekarkeen energiarik ez iturri agorgarrietan oinarriturik ere. Baina, inola ere prest al gaude erotasun osoan bizitzen uzten digun energia kontsumo itsua mugatzeko? Denok nahi ditugu, batez ere kaletarrok, ibilgailu motoredunak, jigsawailuak, era gutziatiko aparatu elektrikoak... Hitz batean esanda, oparotasun ostez agorrezina. Horiek denak mugiarazteko indarra sortu behar da nonbait, ordea.

Arrazoi osoa du Eguzkik Onddiko proiektu honi energiaren plangintza sektorial osoaren barruan azertu behar dela dioenean. Horrelako proiektuak ezin dira bakarka erabaki. Ona ezezik behar-beharrezkoa litzateke Euskal Herriak energiaren alorrean zer beharizan eta zer ahalbide dituen osotasunean aztertzea eta ondorio zehatzak eta doiak ateratzea. Datuekin, neurtuta eta jakinda erabaki behar lukete onargarria eta beharrezkoa zer den eta zer ez den. Baina etorkizunerako gizarte proiektu baten barruan. Eta, horretarako, ez litzateke txarra izango gutako bakoitzak, egunero bizitzan, inguruarekin eta naturarekin zer-nolako harremana dugun, zenbaterainoko gehiegierian gabiltzan eta zertan so, egiteko prest gauden hausnartzea. Horik aurrera, egiazkoagoa, zintzoagoa eta arrazoizkoagoa izango bailitzateke eztabaida.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia
Erredakzioa: Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernaras **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94
ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



OHARRA

Eguberri onak opatzeaz gain, bide batez datorren urteko harpidetza kuota (2.000 pta.) urtarri-lean kobratuko dugula gogorarazten dizuegu.

Dirua gure kontu korrontean sartzeko konpromezua hartu zenutenok otsaila baino lehenago egin beharko duzue dirusarrera.

Gure kontu korronte zenbakiak:

Euskadiko Kutxa: 30350026220260701686

Gipuzkoako Kutxa: 21010095510010369411

**ZURE USTEZ,
NORK IRABAZIKO DU
BERTSO
TXAPELKETA?**



CESAR ARRANZ
IKASLEA. ANDOAIN.

Ez dut bertsolaritzaren mundua eza-gutzen eta beraz ez dut horren inguruan herririk. Gai horrek ez du interesik niretzat eta egia esan ez diot komunikabideen agertu denari ere jaramonik egin.



JOKIN MONFORT
LANGILEA. BILLABONA.

Egañak irabaziko duelakoan nago. Oso gustoko dudan bertsolaria da Egaña eta berak irabaztea gustauko litzaidake. Hala ere, ez ditut aurtengo bertso txapelketaren gorabeherak gehiegi jarraitu.



MARIAN LASKIBAR
ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Niretzako bertsolari faboritoena Andoni Egaña da. Aurtengo saioak ez ditut gehiegi jarraitu baina duela zortzi urte egin zen bertso txapelketako finalean bertan izan nintzen eta gustora entzun nituen bertsoak.



M. CARMEN ZULAIKA
ETXEKOANDREA. ASTEASU.

Andoni Egañak irabaziko duela uste dut. Oraindik maila onean ari den bertsolaria da eta berak irabaztea gustatuko litzaidake. Gustoko dudan bertsolaria da baina ez naiz finalera joango, izan ere, saioa luzea iruditzen zait oso.



ROSA MARIA ULAZIA
ETXEKOANDREA. ADUNA.

Nire ustez Andoni Egañak irabaziko du herriro. Ez ditut alde zuretzat egin diren bertso saioak gehiegi jarraitu baina ikusi ditudan laburpene-tan bertsolariak oso maila ona erakutsi dutela iruditzen zait.

LOTERIA SALGAI

Urtero legez, Larramendi Bazkunaren gabonetako loteria salgai dago. 15.717 eta 31.575 zenbakiko loteria erosi nahi izanez gero, Andoaingo liburudenda, taberna edota Larramendi Bazkuneko egoitzara joan besterik ez dago. Loteria erosteko azken eguna abenduaren 17a izango da. Zorte on guztiei!

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

fundazioa
fundación


ALFARO
JATETXEA

Gure bezeroei, mila esker!

EGUNEROKO MENUA
Etxeberriela auzunea
☎ 59 40 27
ANDOAIN

Abenduaren
31n jatetxea
uzten dugu.

*Adunak ere,
euskararen kapeletik txotx!*



ADUNA ETA EUSKARA BAT EGINIK

Eraz ahaztuko ez duten astea izan da azaroko azken astea Adunan. Euskaraz barre egiteko, ikasteko, sexuaz hitz egiteko, eta batez ere, komunikatzeko aukera izan dute astean zehar antolatu diren hitzaldi eta diapositiba emanaldietan. Baina dudarik gabe, asteburuko ekintzak izan ziren jendetsuenak eta ikusgarrienak. Herriari Gazte Festak zirela zirudien larunbat gauean. Igandean berri, UEMAko 32. herri partaidea bihurtu zen Aduna. Goitik ospatu zuten hitzarmena, eta herritarrek ipuina irakurri, herriko urrezko liburuan izena eman eta argazkian txukun-txukun ateratzeko aukera izan zuten. UEMAko lehendakariak gain, Xabier Huizi eta Josune Aniztondo izan ziren ospakizunean.



Amaqoia Mujika

Andoaindarrrik ez bertso finalean

Abenduaren 14an egingo den Euskal Herriko Bertso Txapelketan ez da Jokin Sorozabal izango. Aitor Mendiluzeren antzera, finalaurrekoetan parte hartu duen arren, ez du finalerako pasea lortu. Sorozabalek azaroaren 30an Beasainen egin zen finalaurrekoan bi poto egin zituzenez, 788 puntu baino ez zituen lortu.

Gabon kanten entsaiuak

Andoaingo Aita Manuel Larramendi ikastolak gabon gauen kantari atera aurretik entsaiuak antolatu ditu. Hori dela eta, abenduaren 18an eta 22an, Ikastola Handian eta arratsaldeko 19:00etan egingo dira saioak.

Entsaiotara joaterik ez dutenek baina egun horretan kantari atera nahi duten ikastolako ikasle ohi, guraso, ikasle eta irakasleek zita bat dute hilaren 24an Udaletxe aurrean arratsaldeko 17:00etan.

Martin Ugaldere omenaldiko argazkiak


Dagoeneko ikus litezke Martin Ugaldere omenaldian Manu Mujika argazkilariak Larramendi Bazkunarentzat egindako argazkiak, ia ekitaldi guztietakoak jasotzen diren ehundik gora argazkiekin osaturiko bilduman. Argazkiak ikusi eta kopiaren bat eskatu nahi duten herritarrek Larramendi Bazkunaren egoitzara joan litezke bilduma hori ikusi eta argazkiak aukeratzera (Andoaingo Dr. Huizi kaleko, 15-1gora). Argazkien neurria 13x20 cm. da eta kopia bakoitzaren prezioa 200 pezetakoa izango da. Bost kopiatik gorako eskakizunetan beherapena egingo da prezioan.

GIZATASUNA

Urtero garai honetan nahikoa buruhauste izaten dugu Gabonak datozela eta buruhausteak era askotakoak izaten dira: ez daukagun dirua gastatu behar dugula, edo senitartekoan harremana ez dela onegia eta elkartu beharra dira. Besteak beste, sasoi honetan nahikoa burukomin ematen duten aferak. Hala ere, beste arazo bat datorkit gogora. Gure artean egon beharko zuketenen falta eta gure artean ez daudenen sufrimendua da, hain zuzen, zoritxarrez dugun arazo larriena. Egutero nabaritzen dugu haien urruntasuna, egutero sufritzen haien hutsunca. Baina egun hauetan "Hator hator" abesten hasi eta malko bat baino gehiago isurtzen da etxe askotan. Baita brindis bat baino gehiago egin ere, jasan behar duten egoera gogorren gainetik dutelako burua. tente. Urrunegi dauden espetxeetan eta mugarik ez duten kartzeletan ihesi dauden ahaideak etxeratzea nahi nuke, eta oraingoz hori ezinezkoa dela kontuan harturik, zergaitia non dagoen hausnartzeko unea eskatu nahi diot Aiurriko irakurleari. Aita, ama, alaba, semea, laguna, ezaguna, aldamenekoa, herrikoa ... Guztiok dugu faltan ingurukoren bat. Orain guztion ahotan dago presoan euskal herriratzeko eskaera, Euskal Herriko auzia ulertzeko era asko badago ere, ez baitago inor (ez luke egon behar behintzat) presoan eskubideak urratzen direla ezbaian jartzen duenik; eskubide horiek betearazi behar ditugula ukatzen duenik. Gure etxean ez badaude ere, gutxienez Euskal Herrian, gure herrian egotea ez al da guztiok betearaztea eskatu behar dugun eskubidea?

Alde onak ere baditu Gabon jaiak. Izan ere, urtean zehar ahazten dugun gizatasuna eskuratzen baitugu, minutu gutxi batzuetarako besterik ez bada. Presoak gogoan izaten baditugu, zor zaien eskubidea errespetatzen eta bermatzen badugu, eta guztion arazoa dela kontuan hartzen badugu, gizatasunaz ari gara, ez beste ezertaz.

Azkenik, brindis bat egin nahi nuke presoan ahaideengatik. Astero haien ondoan egotearren egiten dituzten milaka kilometroengatik, eta batez ere berriak gizatasunari arrazoi emango diola esperantza izategatik.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

UNAI
OINETAKOAK

Kale Nagusia, 12
BILLABONA
☎ 69 12 61

UME ETA
GAZTEENTZAKO
OINETAKOAK

IV. GAZTE ASTEA ANDOAINEN

Unteroko legez, hamar egunetan zehar gazteek ondo pasa eta elkarrekin harremanetan jartzea du helburu Gazte Asteak. Horretarako, Andoaingo elkarte eta talde ezberdinen laguntza izango dute Gazte Asteko antolatzaile eta giza hezitzaile diren Carlos Argilea eta Pili Azpeitiak.

Azken urteetan gazte astean parte hartu duten gazteen kopurua ikusirik, ia 800 gazte hartu baitzuten parte, aurreneko aste arrakastatsua izango dela espero dute. Horrez gain, adierazi behar dugu aste hori azaltzeko kartel lehiaketako irabazlea Vanesa Godoy izan dela. Andoaindarrez gain, Burdeosetik etorriko diren bi gazte taldek eta La Rochelletik etorriko diren beste talde batek hartuko dute parte aurtengo Gazte Astearen.

Ekitaldiak eta ordutegia

Abenduak 22

9:00etan: Areto futbola (egun osoan zehar)

Abenduak 23

10:00etan: Areto futbola (finalak)

16:00etan: Boley-bola

Oharra: Gainerako egunak eta ordutegiak ikus gure agendan

TTIPI-TXOKOA LUDOTEKAREN ZAZPIGARREN URTEMUGA

Zazpi urte dira Karrikako Ttipi-txokoa udal ludoteka sortu zela. Zikulusaltsa taldearen ekimenez arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara funtzionatzen du ludotekak, eta egun, 3 urtetik 14 urte bitarteko ia ehun bazkide inguru dauzka. Jaialdiak, tailerrak, bideo emanaldiak, jolasak edota liburutegia eta ludoteka zerbitzuak eskaintzen ditu ludotekak, besteak beste.

GABONETAKO EKINTZAK

Gabonak inguruan direnez, Udalak antolatutako jaiotza lehiaketan parte hartu, ludoteka apaindu, Karrika auzoko jaiotza erakusketa prestatu, merienda bat egin eta Txuri-urdinera eta gabonetako haur parkea bisitatzeko irteerak antolatu dituzte.




ASKAPENA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO ASTE SOLIDARIOA

ASTE OSOAN ZEHAR BIDEO EMANALDI ETA HITZALDI UGARI IZAN DIRA HERRIKO ZENBAIT TABERNA ETA URIGAIN KULTURA ETXEAN. HORREZ GAIN, CHE GUEVARAREN HERIOTZAREN 30. URTEURRENAREN INGURUKO ERAKUSKETA BAT ERE IKUSGAI IZAN DA HERRIAN.

Askapenaren solidaritatearen 10 urte "izenburupeko hitzaldian, Askapenako bozeramaile den Walter Wendelinek Askapena, solidaritate motak eta zenbait herrialdeen egoera aztertutako zuen. Walterren esanetan, ia 200 erakunde ez gobernutarrek izan arren, ia talde gehienek Estatuak, Gobernuek eta bankuek nahi duten hori bultzatu baino ez dute egiten.

Hau da, laguntza ematen dutelakoan boteredunak laguntza horretaz baliatzen dira lorpenak beraiantzat izanez. Beraz, Askapenak ez du herrialdeen garapenerako lan egiten: "Guk ez diegu ezer erakusten, ez eta zer eta nola egin behar duten esaten. Izan ere, beraien lortzen duten hori lapurtzen bazaie, boteredunek hotere eta irabazi gehiago izatea baino ez dugu lortzen. Aberatsen, boteredunen aurka borrokatu behar da" adierazi digu Walterrek. Hori dela eta, Askapenaren helburuak hauexek dira:

- Emantzipazioa eta berreraikuntzaren alde borrokatzen duten herriei buruz informatzea.
- Imperialismoa eta neoliberalismoaren kontra borrokatzen duten herrien kontrako errepresioa eta nagusikeriak salatzea.
- Herrien arteko elkartasunaren garrantzia eta beharra azaltzea, hau da, Euskal Herria sentsibilizatu eta kontzientziatzea; eta azkenik,
- Herrien autodeterminazioa eta aldarrikapen demokratiko, nazional eta sozialaren alde lan egiteko Euskal Herria mobilizatzea.



GOLF ESKOLA GOIBURUN

GOLFEAN JOKATZEN IKASTEA DA DEGOTOUR ELKARTEAK EGINGO DUEN GOLF ESKOLAREN HELBURUA. BEHARREZKO DEN DOKUMENTAZIO GUZTIA BETE BEZAIN LAISTER HASIKO DIRA GOLF ESKOLAKO LANAK EGITEN. IZAN ERE, 97-98 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA PROGRAMAREN BARRUAN SARTUKO DA GOLFA IRAKASTEA.

GOLF ESKOLAREN INGURUAN HITZEGITEKO DEGOTOUR ELKARTEKO IBON ARREGI ETA PEDRO ETXAZARRETAREKIN IZAN GARA.

Argazkia: J. I. Unanue



«Zinko borda» baserriaren inguruan ezarriko da golf eskola.

- Nolatan bururatu zaitzue golf eskola egitea?

Cuk golfa oso gustoko dugu eta zoritxarrez ez dago aukera handirik golfean aritzeko. Klub pribatuak baino ez daude hemen, eta beraz, Frantziara joaten gara golfean jokatzera. Horregatik, pertsona orori golfean jokatzeko erakustea da gure nahia. Euskadi osoan irekiko den lehen golf eskola izango da.

- Eta zergaitik bautatu duzue Andoain berria?

Tolosarrak gara eta inguruan ezarri nahi genuen golf eskola. Goiburu asko gustatu zitzaigun eta bertako auzokide, Udala eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri eta beraien onepena lortu ondoren, ideiarekin aurrera jarraitu dugu.

- Zein lan egin behar dira eskola osatzeko? Gutxieneko azpiegitura erabiliko dugu, natura eta ingurunea guztiz errespetatuko dugu. Zelai osoaren %8an bakarrik egingo dira lanak. Hau da, autoentzako aparkalekuak, golfa praktikatzeko zelai txiki bat eta golf-ean arituko diren lagunak egoteko lekuak

ardurakoa izango da. Zelaiaren neurria, guztira, 36.096 m²koa da.

- Noiz hasiko da martxan golf eskola?

Dokumentazio guztia bete bezain laister hasiko gara beharrezko lanak egiten. Lanak egiteko ez dugu den-

bora asko behar, eta gure asmoa lanak ahalik eta azkarren hastea da. Izan ere, martxoaren 15erako edo, eskola kirola programari helduz, haur eta gazteen lehenengo bisita izango dugu.

- Zein zerbitzu eskainiko duzue?

Eskola den heinean bezeroei golfa erakustea eta ezagutzaraztea da gure helburua. Bezero kopuruaren arabera erabakiko da zenbat irakasle izango dugun. Horrez gain, ondoren golfa praktikatu ahal izateko bidaiak antolatuko ditugu behar bada, baina oraindik ez dakigu zein izango diren bezeroen nahiak eta martxan jarri arte ezin dugu jakin zer eskainiko dugun zehazki. Hori bai, golfean aritzeko materialak eta pelotak guk utziko dizkiegu bezeroei.

“GUTXIENEO AZPIEGITURA ERABILIKO DUGU, NATURA ETA INGURUNEA GUZTIZ ERRESPETATUKO DUGU”

ezarriko dira. Euria eginez gero, aterpean aritzeko lekua, materiala gordetzeko biltokia eta aldagelak ezarriko dira. Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro sailak gomendatutako tratua emango zaio lurriari ondo oxigenatuta egon dadin. Zelaiaren beste aldera botako dira pelotak eta pelota horiek makina batek jasoko ditu. Belardi horren mantentimendua, orain arte bezala, ardien

EMBITIDOS ORMAKI URDAITEGIA

TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida 2/g - 307. Moduloa - ☎ 592923

ANDOAIN

Taberna

Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDÓ PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN

BERNARDO ATXAGAREN OMENEZKO AFARIA

Aitzondo elkarteak Bernardo Atxaga izenarekin ezagunagoa den Joxe Irazu asteasuar idazlea omentzeko afaria egingo du hilaren 20an. Duela bi urteko erabakia zen omenaldi hau egitea, eta azkenean, aurten burutuko dute. "Omenaldia Joxe Irazu herriko semea, idazle paregabea eta bere aita elkarteko bazkidea delako



egingo diogu", azaldu digute omenaldiaren antolatzaileek. Ehun eta hamar lagunek bazkaltzeko lekua dago, eta eserleku guztiak bazkideek beteko ez balituzte, bazkide ez direnak joan ahal izango dira afarira. Behin afaldu ondoren tertuli piska bat egin eta opari batzuk emango dizkiote idazleari.

MUS TXAPELKETA ARRAKASTATSUA

Billabonako Irintzi elkarteak irailan egin zen jai egunera gonbidatu zituen Aitzondo elkarteko lagunak. Txekor isatsaren prestaketan 4. postua lortu zuten asteasuarrek eta bazkaldu ondoren musean aritu ziren arratsalde osoan. Ondorioz, Aitzondon ere mus txapelketa egitea bururatu zitzairen. Pentsatu eta egin, 20 bikotek hartu dute parte aurten lehenengo aldiz antolatu duten mus txapelketan. Gaur finalurrekoak izango dira afaldu aurretik, eta afaldu ondoren, finala jokatu da irabazleak eta bigarren, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko. Aitzondo elkarteak eskerrak eman nahi dizkie mus txapelketa egiteko laguntza eman duten guztiei.

ASINTXIO ITURBE ALKATE OHIA ATXILOTUTA

Asintxio Iturbe HBko alkate ohia atxilotu egin zuten joan den hilaren bukaera aldera. Eguerdiko 12etan atxilotu zuten ertzainek Asintxio Iturbe eta Hernaniko Ertzaintzaren komisaldegira eramane zuten. HBko lagunak esan digutenez, fitxa politziala bete ondoren, eguerdiko ordubiak aldera, Tolosako epaitegira eramane zuten deklarazioa hartzera. Epaileak euskaraz ez dakienez eta Iturbek euskaraz deklarazioa eskatu zuenez, itzultzailea etorri arte zain egon ziren. Behin itzultzailea bertaratuta, ejerzitu espainiarrarekin Udalak dituzten konpromezuak zergatik ez zituen bete galdetu zion epaileak Asintxio Iturbere. Izan ere, HBko alkate ohiak ez zituen Udalak ejerzituarekin dituen be-

tebeharrak bete bere alkatezta garaian. Iturbek erabaki hori Asteasuko Udalbatzak hartu zuela eta berak erabakia bete besterik ez zuela egin esan zuen. Behin deklarazioa hartuta libre utzi zuten.

UDALBATZAREN ERABAKIA DELA KOLOKAN

Egungo alkateak esan digunez, berriek ez dute udalbatzak horrelako erabakirik inoiz hartu duenaren berririk. Alkate ohia atxilotzeko eta deklarazioa eramateko arrazoia, 1994. urteko mutilen zerrenda ejerzituari ez eman izana omen da. Asteasuko Herri Batasunak, ordea, erabakia udalbatzaren hartutakoa dela azpimarratu digu.

Buzoi berriak

Herriko baserri bide eta auzoetan buzoi berriak jarri dituzte. Orain arte iraun duten buzoi zaharrak kendu eta berriak jarri dituzte, hori bai, aurrekoaren igualak dira; egurrezkoak eta etxetxo itxurakoak. Guztira 62 buzoi berri jarri dituzte herriko baserri eta etxe guztientzat. Errekabailaran eta Upazan auzoan aurrez egin zituzten buzoi berriak jartzeko lanak; 40 guztira.



Ormendik
Kirolak

KIROLA EGITEKO ETA
ZURE ATSEDENALDIRAKO



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN

Joxe Mari Olarra gartzelan

Martuteneko gartzelan dago Joxe Mari Olarra HBko Mahai Nazionalako kide billbonatarra hilaren 5az gerostik. Zazpi urtetako espetxe zigorra ezarri dio Auzitegi Gorenak Mahai Nazionalako kide bakoitzari, bere epaiaren arabera. ETArekin kolaboratzeagatik. Gartzeleratzea salatzen hainbat mobilizazio iragarri ditu Herri Batasunak. Horrezaz gain, Billabonako Udalak HBk aurkezturiko mozioa onartu du EAJ-PNV eta Bidean taldearen aldeko botuekin; EA ez zen udalbatzarrrera agertu. Mozioak epaia gaitzetsi eta Euskal Herriarentzat konponbide demokratikoak bilatzeko eskatzen du. Gainera, 15 minutuz argiak itzaltzeko deia luzatu zuten Udaletik protesta gisa.

Yoga ikastaroa

Arnasketa, gorputz eta luzatze ariketak era erlaxazioa lantzeko ikastaroa antolatu du Billabonako Udalak. Ikastaroa astelchen eta asteazkenetan izango da arratsaldeko 18:45etan eta ordu terdiko saioak izango dira. Izen ematea Billabonako Kultura Etxean (arratsaldez).

**EGOERA LARRIEI
AURREZ ANTZEMATEKO EKIMENAK**

Billabonako Udaleko Gizarte Ongizate batzordeak ikasturtean zehar ekintza ezberdinak antolatuko ditu Fleming eta Jesusen Bihotza ikastetxeekin batera. Ekintza horiek haur eta gaztetxoek izan ditzaketan adaptazioa arazoei eta arazo larriagoei aurrez antzematea dute helburu. Era berean, egoera larri horiek bizi dituzten familiei lagundu eta Ongizate Batzordea, ikastetxeak eta familiak elkar harremanetan jarri nahi dituzte.

IRAKASLEEKIN ETA GURASOekin LANEAN

Bai Fleming ikastetxean bai Jesusen Bihotza ikastetxean guraso taldeak eratuko dituzte. Talde horietan gurasoak eta Psikologia fakultateko bi aditu bilduko dira gurasoek beren familietan dituzten arazoak adierazteko eta konponbideetaz hitz egiteko. Gurasoek proposaturiko gaietaz lau hitzaldi eskainiko dituzte ikasturtean zehar, eta bertan hitz egin denaz eztabaidatzen jarraituko dute taldeetan.

Irakasleek ere hartuko dute parte ekimenean, eta beraz, egoera larriei nola antzeman eta horren aurrean nola jokatu jakiteko lan saioak antolatu dituzte.

FILMEAK EZTABAIDAGAI

"Trudi biziak" izenburupean zenbait filme eskainiko dituzte ikastetxeak ikasle eta beren gurasoentzat. Filme horiek haur eta gaztetxoek izan ditzaketan arazoak irudikatzen dituzte, eta behin haurrek ikusi ondoren ikusiko dute pelikula gurasoek.

Ongizate Batzordeko buru den Gurrutze Fariñasen esanetan ekimenak haur eta gaztetxoak bizi-egoera larri guztien jakinaren gainean jartzea du helburu, "droga prebenitu beharreko arazo bat izan arren, ez baita bakarra".



Irakasle eta gurasoak batera lanean.

BASAJAUN
LIBURUDENDA

Kale nagusia, 29 ☎ 69 16 51

BILLABONA

Olentzerotako joku dikaktikoak, opariak eta liburuetan azken nobedadeak.

ARTE
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tif. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

**SENIDEAK
ELKARTEAREN
MARTXA BILLABONAN**

Abenduaren 3an izan ziren Senideak elkarteko lagunak Billabonan. Tolosaldean izan ziren egun berean eta Billabonan konzentrazioa egin ondoren, herrian bertan bazkaldu zuten. Presoen senitartekoak dira oraindik abian den martxa nazional horretako lagunak eta bertan Pili Esain billabonatarra, Mikel Zalakain zenaren emaztea, ari da parte hartzen. Martxaren leloa "Gehingoaren nahia bete dadila euskal presoak Euskal Herrira" da, eta horrexegatik, jotzen diren herri bakoitzeko elkarte, erakunde eta alderdi politikoeekin bilerak egiten ari dira preso berri eta beren eskakizunen azalpenak emateko. Gauzak horrela, Billabonako elkarte eta erakunde ezberdinekin bilerak egin dituzte Senideak elkarteko kideek egun hauetan zehar. Eta martxa herrian izan zenean, Joxi Mugika alkateak udaletxean egin zien harrera egin zien.

Senideak elkartekoak alkatearekin.




AKORDIOAK BETETZEA ESKATZEN

Senideak elkarteak Gasteizko nahiz Nafarroako legebiltzarretan duela urtebete baino gehiago hartu ziren akordioak betetzea eskatzen dute. Halaber, presoen eskubideak errespetatzea, legez kanpoko den dispertsio politikarekin amaitzea eta zigorraren hiru laurdenak beterik eta gaixotasun sendaezinak dituzten presoak libre uztea eskatzen dute.

**ZAHARRAK
BERRI**



Joxito Eizmendi



HARRIASOTZAILEAK

Billabonako garaje batean erakusten nion bospasei mutili harria jasotzen. Orain Adunan bizi den Iñaki Goristidi izan zen nire ikasletako bat, ederki jasotzen zuen harria! Amezketako Zubeldia, Asteasuko Sarasola eta Astigarragako Gorriti ziren besteak. Orain ez dabil horietako inor harrijasotzen. Ni neroni, gaztea nintzenean, harria jasotzen ibilia naiz, baina erniatu eta bertan behera gelditu ziren nire harrijasotze saioak. Nire anai Inazio, 1950. urtearen inguruan, 65 kilo pisatzen zituela, 125 kilogramotako harri zilindrikoa 64 aldiz altxatu zuen ordu erdian. Eta lurretik zuzenean jaso zuen gainera, geldiunerik egin gabe altxatzen zuen harria tanda bakoitzean! Goenatxo II.ak, nire laguntzarekin, 152 kilogramotako harri kubikoa 97 aldiz jaso zuen ordu erdian 1988. urtean. Manterolaren marka hautsi eta errekor berria lortu zuen. Lehen ez zen orain bezalako preparazorik izaten harrijasotzen ikasteko, baina orain berriz, harrijasotze saio gutxiago antolatzen dira. Nik eskola ematen nuenean gorputza berotzeko pistu gutxiko harria jasotzen hasten ginen harri astunagoa jaso aurretik. Gimnasia ere egiten genuen, baita soka saltoan salto egin ere! Mutiko bakoitzak harri jakin bat jasotzeko abilitadea zuen, hori zen deskubritu beharreko kontua. Alimentazioa ere ongi zaindu beharrekoa kontua da. Nire anaiak, egunero, arraultza eta platano kilo mordoxka eta haragi kilo jaten zuen. Kiloak edukitzea beharrezkoa da harria jasotzean gorputzak balantzarik ez egiteko.

Ageliseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

**ALOTZ
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - % 59 07 06
ANDOAIN

Loitzo

Etxeko Osagaiak

**LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK**

Errota kalea. - 3 69 21 35 BILLABONA

Gauko kros arrakastatsua

Zizurkilgo Kostata gazte asanbladak azaroko azken asteburuan antolatu zuen I. Gauko Krosak izugarrizko arrakasta izan zuen. Ia ehun pertsonak hartu zuten parte euripean burutu zen lasterketan, eta korrikalari gehienak mutilak eta 14 urtez gorakoak izan ziren. Korri egiteaz gain, zizurkildar ugari aritu zen, aterpea zegoen lekuetan, korrikalariei animoak ematen. Beraz, gauko krosak izan duen harrera ona ikusirik, hemen-dik aurrera urtero antolatuko duten lasterketa izango da ziurrenik, hori da behintzat Kostatako lagunen asmoa.

IRABAZLEAK

Hamalu urtez gorakoen artean: Iñaki Altuna eta Isabel Dumal

Hamalu urtez beheakoen artean: Joseba eta Mirian Arana



Aloña Ipintza

MENDIA

Mendia eta natura orokorrean, gizakiak zapeltzen ez duen bitartean gauza ederra dela guztiok dakigu. Baina penintsula osoa, alde batetik bestera zuhaitzez zuhaitz lurrik ukitu gabe igaro zitekeela iraganeko gauza da, amets bat esango nuke nik, eta hori bezala beste hainbat gauza. Ingurugiroa ez da gizonak gehiegi errespetatzen duen zerbait, eta Zizurkilgo herria ez da salbuespena.

Lehenik eta behin, aitortu behar dut Zarate eta beste hainbat inguru txukundu berri direla, baserrietako herri bideak dagoeneko eginak daudela, eta lan txalogarriak direla benetan.

Baina ondo eginiko lanak, lan azkarrak direla esaten duten arren, norbaitzuk ez dute lema hau kontutan izaten.

Nire aita oso mendizalea bera, azken hilabete honetan Bordabe edo Lepasoro baserrietara iritsi ezinik dabil: arrazoa zein ote? Leodierrotatik aurrera kamioiak zuhaitzak moztzen ibiliak dira eta seinalea ere utzi omen dute, ez zuhaitz gutxiago daudelako soilik, belaunetarainoko lokatza baitago. Xelebrea benetan!!

Baina noski hau ez da udalari soilik bidaltzen diodan mezu bat. Guztiok gara naturaren ardura dugunak, edo hitz egokiago bat erabilita, errespetatzen ikasi behar dugunak, ez da batere zaila!!

Gainera uste dut kontzientziatzen hasteko gararik hobereana dela hau. Egu-berriak direla eta mendira jotzen dugu pinu zein goroldio bila. Ez dezagun ahaztu kalte izugarria dakarkiola horiek naturari. Hobe izango da bai, edozein dendatar inguratu eta plastikoz eginikoak erostea.

Naturak asko ematen digu guri, nolabait eskertzeko modu on bat izan daiteke hau.

**DANENA ESPAINIAKO ALTEROFILIA
TXAPELKETAKO HIRUGARRENA**

Azaroan Madrilén egin zen alterofilia taldeen arteko Espainiako txapelketan hirugarren postua lortu zuen Danena alterofilia taldeak. Estatu Espainiarreko 16 taldek hartu zuten parte, eta talde gehienak komunitate autonomo jakin bateko alterofilia talde guztietako ordezkariak osatzen zuten. Danenaren kasuan, ordea, Zizurkilgo ekipokoak ziren txapelketan parte hartu zuten kirolariak. Hamar mutil eta lau neska joan ziren Madrilera eta talde lan bikaina egin zuten. Hasierako asmoa lehenengo zortzien artean geratzea zen "Madrilerako bidaia sortutako gastuak Federazioak ordain zitzan", adierazi digu Batis Kortajarena entrenatzaileak, baina azkenean gastuak ordaintzeaz gain eta medailak ez ezik, oparitxo bat jasoko dute ere hirugarren postua lortzeagatik.



Danena alterofilia taldearen kideak

TXAPELKETA GEHIAGO

Hilaren 13an Bilbon egingo den Euskadiko txapelketan hartuko dute parte Danenako junior (20 urte azpikoak) eta junior (18 urte azpikoak) mailako kirolariak. Hilaren 20an berri, Gipuzkoako txapelketan hartuko dute parte eta lehenengo bi postuak Danenako bi taldek lortuko dituztelakoan daude.

ZIRAUNA KIROL JANTZIAK EGITEN

KIROL JANTZIAK EGITEN DITUEN ZIRAUNA ENPRESA DUELA 11 URTE HASI ZEN LAN HORRETAN. KIROL ELKARTEAK, KIROL DENDAK ETA IKASTETXEAK DIRA BERAIEI BEZERO NAGUSIAK ETA ENKARGU BIDEZ EGITEN DUTE LAN. KIROLARIEK DARAMATEN JANTZI HORIEK NOLA EGITEN DIREN EZAGUTZEKO ZIRAUNA ENPRESAKO BURUDEN CESAR URANGAREKIN IZAN GARA.



Kirol jantziak egiten diren zirauna.

- Zein kirol jantzi egin ohi duzue?
Saskibaloia, txirrindularitza, atletismo eta eskubaloia taldeen kirol jantziak egiten ditugu. Kirola egiteko jantziak egiten ditugu eta ez "sport" arropa gisa ezagutzen dena. Kirolaren arabera, material batekin edo bestearekin egiten dugu jantzia.

- Zein dira zuen bezeroak?
Gure bezero nagusiak kirol elkarteak, ikastetxeak eta kirol dendak dira. Ez dugu bezero partikularrenzat jantzirik egiten. Enkargu bidez egiten ditugu kirol jantziak. Bezeroen nahiak betetzeko eta beraiekin harremanetan egoteko, gure komertziala bezeroak bisitatzeaz arduratzen da. Andoaindar elkarteaz gain, Euskal Herriko eta Estatu taldeentzat egin ohi ditugu kirol jantziak.

- Zein prozesu jarraitzen duzue kirol jantzia diseinatzeke?
Prozesu luze eta zaila da. Lehen lehenik, kirol jantziaren diseinua egiten da ordenadore bidez eta diseinua, normalean, bezeroak finkatzen du. Diseinua egin ondoren, tolotito antzeko batzuetan kolore banaketa egiten da. Planxa batzuekin alde batean papera eta bestean ohiala jarrita jantziari irudia estanpatzen diogu. Ondoren, eta behin patroia eginda osatu dugun jantzia jostea baino ez da geratzen. Prozesu luzea da eta normalean bi aste behar izaten da lan hori gutzia egiteko.

- Zein material aukeratzen duzue jantziak egiteko?
Ez dugu moda gehiegi jarraitzen. Materiala edota kolore berriek bere garrantzia dute, makineriaren antzera, eta beraz, lan horretan aurrera jarraitzeko beti berritzen eta aldatzen joan behar duzu. Hala ere, gure txandalak adibidez nahikoa klasikoak dira.

- Zein material aukeratzen duzue jantziak egiteko?

Kirolaren arabera aukeratzen da materiala. Horrezaz gain, udarako edo neguko denboraldirako den kontutan hartu behar da. Gainera, materiala asko dago eta materialak beti doaz berritzen; oso mundu aldakorra da. Bezeroak ez dute jakiten zein material erabili. Guk erabakitzen dugu zein den kirol jantzi horretarako materialik egokiena.

- Modaren eragina nabaritzen al duzue?
Ez dugu moda gehiegi jarraitzen. Materiala edota kolore berriek bere garrantzia dute, makineriaren antzera, eta beraz, lan horretan aurrera jarraitzeko beti berritzen eta aldatzen joan behar duzu. Hala ere, gure txandalak adibidez nahikoa klasikoak dira.

- Kompetentzia handia al dago kirol jantziaren alorrean?
Euskal Herrian ez dago kirol jantziak egiten duen enpresa asko baina hala ere, kompetentzia handia dago. Euskal Herri eta Estatu mailan egiten dugu lan eta Kataluniak garrantzi handia du oihalaren sektorean. Kirola asko egiten da eta kirol jantziak duela 20 urte baino gehiago saltzen dira, kompetentzia ere handiagoa da. Zortzi langileko enpresa bat gara eta gu baino handiago diren enpresekin lehiatu behar izaten dugu.

"ANDOAINDAR ELKARTEAZ GAIN, EUSKAL HERRIKO ETA ESTATUKO TALDEENTZAT EGIN OHI DITUGU KIROL JANTZIAK"

N *Seguros*

Aseguruak ARGENTARIA

Asesora

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxa 69 37 34

ZIZURKIL

Seguros

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK
Erremontari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

FRANCISCO MENDIKUTE
Harategia

Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

Familia eredu ezberdinak

LANA DUEN ADIN NAGUSIKO PERTSONA IZAN ARTE GURASOEN ETXEAN BIZITZEA DA OHIKOENA, ONDOREN, BERE FAMILIA PROPIOA ERATZEA BAITA ASKOREN ASMOA. EDOZEIN FAMILIA EREDUA AUKERATZEN DELA ERE, GUZTIAK DIRA BALIAGARRIAK; BETI ERE BAKOITZAK BERE BIZITZEKO MODUA AUKE-RATU ETA EREDU HORREK FUNTZIONATZEN DUEN BIRTARTEAN. HURRENGO LERROETAN AGERTUKO DIREN FAMILIA EREDUAK, EREDU HORIETAKO BATZUK DIRA; EZ DENAK, IZAN ERE. LERRO HAUEN BIDEZ, ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU ERREPORTAIA HAU EGITEN LAGUNDU ETA GURE GONBIDAPENA ONARTU DUTEN GUZTIEI.



Asteasuko Logarra familiako batzuk.

Gizakia bat pertsona sozializatua den heinean familia baten eremuan bizi da. Hau da, pertsona pertsona gisa garatzeko zenbait balore ezagutu eta transmititu behar ditu. Familia gizakia- ren elkarbizitzarako oinarritzko eredu da. Gizakiak bere gertuko pertsona batzuekin eta etxebizitza berdinean elkarbizitza darama gizakiak.

Egun, herritarren gehiengoa familia estandarra gisa ezagutzen den giza multzoan bizi da. Hau da, bikote bat ezkondu eta beren seme alabek osatutako familia giroan bizi dira. Bi-hiru seme alaba eta gurasok osatutako familia, hain zuzen ere. Baina ez da familia eredu bakarra, ez

eta besteak baino hobeagoa edota okerragoa; eredu bat baino ez da nahiz eta gehiengoak eredu horri jarraitu.

FAMILIA ESTANDARRA

Familia estandarraren barruan, badira «familia ugaria» gisa ezagutzen diren familiak. Lau seme-alaba edota gehiago dituzten bikoteak. Izan ere, lehen egun baino seme-alaba gehiago izaten zituuzten bikoteak. Familia ugariko kasua dugu Mujika-Tolaretxipi familia andoaindarra. Familia honek 8 seme-alaba ditu; bost neska eta hiru mutil. "Argi genuen seme-alaba asko izan nahi genituela, nahiz eta zortzi seme-alaba izango zirela ez genuen aurretik erabaki. Garai hartan gainera, bikotea ezkondu

eta berehala izaten zituen haurrak. Nire lehenengo semea ezkondu eta urtebetera jaio zen ordea" azaldu digu Begoña Tolaretxipik. Seme-alabak aurrera ateratzeko senar-emazteak egin zuten lana eta horregatik ez zuten dirulaguntza asko izan. "Horrez gain, lehenengo garbigailua, frigorifikoa edota haur-ohialak oso berandu lortu genituen, eta beraz, dena eskuz egin behar izaten genuen, eta ez orain bezala!". Egun hiru seme-alaba gazteenak bakarrik bizi dira etxean, nahiz eta bazkaltzeko garaian bat baino gehiago bueltatzen den etxera.

BASERRI GIROKO FAMILIA

Gure aiton amonen garaian eta egun oraindik ere, baserri giroko herri edota ingurune-

VIDEO CLUB

CLUB de CAMBIO AMETS VIDEO CLUB

- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behea BILLABONA

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA

Joxe Ramon

TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

an, aiton-amona, seme-alabak eta azken horien seme-alabak (billobak) elkarrekin bizi dira etxe berean. Hau da, badira etxebizitza berean odol bereko hiru belaunaldi-ko familiak.

“FAMILIA EREDU GUZTIAK DIRA ONAK ONDO FUNTZIONATZEN DUTEN BITARTEAN”

Asteasuko herrian mota horretako famili ugari dago. Horieta-ko bat, Age-rrubekoa baserriko Legarra familia da.

Lau alaba ditu Juan Legarrak eta horietako bi berarekin etxean bizi dira. “Alaba gazte-ena ezkondu eta nora joan ez zuenez etxean geratu zen. Horrezaz gain, beste alaba ezkongabea ere gurekin bizi da. Herritar asko baserri-rik kalera joan da, edota etxebizitzarik egiten ez zenez Billabonara. Hala ere, badira gu bezala etxe berean bizi diren hiru generazioko familiak.” Legarretarren etxean zortzi lagun bizi dira. Aiton-amona, alaba soltera eta beste alaba bere senar eta hiru seme-alabekin. Ezkondu-tako alabaren familia ordea, gurasoen inguruan etxebizitza

egiten ari da bertara bizitzera joateko asmoa baitu.

AMA EZKONGABEA

Argi Leria andoaindarra bere bi semeekin bizi da. Lehenengo semearen aita eta biak elkarrekin bizitzen urte asko pasa arren ez zen berarekin ezkondu; legearen aurrean ama ezkongabea da. Orain, harreman hori hautsi ondoren, bigarren seme bat ere badu eta bi haurrak eta ama elkarrekin bizi dira. “Nire seme zaharrena, txikienak hila-bete batzuk baino ez ditu, eta nire artean dagoen harremana oso estua da eta asko hitz egiten dugu. Ama ezkongabea izateagatik gizar-teak aldez aurretik kontrako jarrera eragiten du jendearengan, eta ez dago guztiz baieztatuta famili eredu tradizionala beste familia ereduak baino hobea denik. Familia modelu guztiak dira onak ondo funtzionatzen duten bitartean”. Argiren esanetan, ezberdina den orok errefusatzeko soziala du; beste familia alternatiboak familia tradizionala, hau da, egungo sistemaren baloreak kolokan jartzen ditugu eta horregatik gaude hain gaizki ikusita.

FAMILIA HARTZAIL-LEA

Ez dira familia hartzailearen kasu asko ezagutzen, baina badira. Matilde Aranburu andoaindarra dugu horren adibidea. Matilde amarekin bizi zen baina ama hil eta bakarrik geratu zen. Umeak betidanik gustatu arren seme-alabak adoptatzeko helduegia zela uste zuen. Familian arazoak zituzten bi anai-arreben herri izan ondoren, bere etxean hartu eta bere seme-alaba gisa hezitzea erabaki zuen Matildek. “Etxean arazoak dituzten eta gurasoek zaindu ezin dituzten haurrak beste familietara joaten dira denbora baterako. Ez dituzu haurrak adoptatzen, baizik eta tenporalki zurekin bizitzera ekartzen dituzu. Arazoa konponduz gero haurrak beren etxetara bueltatzen dira”. Matilde Aranburu

izan da familia hartzailetako lehengotariko bat, lehena ez bada. “Duela hamar urte etorri ziren etxera Amaia eta Peio. Hasiera oso gogorra izan zen hirurontzat. Dena arrotza zen beraientzat, ez genuen elkar ulertzen eta momentu batzuetan dena bertan behera uztekotan egon arren, ez naiz damutzen erabaki hori hartu izanaz. Familiat osatu dugu eta gustora aurkitzen gara. Orain ordea etorkizunak arduratzen nau. Biharko egunean faltatzen naizenean ez dakit nora joko duten” dio Matildek.



Matilde Aranburu Amala eta Peiorekin.

► HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA- LI GURE EGOTZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko ☐ : Laneko ☐ :

BILLABONA

HAMABI URTE DIRA ABESBATZA SORTU ZELA. ORAIN ARTE OSKARBI IZENAZ EZAGUTZEN BAZEN ERE, FEDERATZERAKOAN IZENA ALDATU BEHAR IZAN DUTE, BAINA GAINERAKOAN LEHEN BEZALA JARRAITZEN DUTE LANEAN. ADINA KONTUTAN HARTURIK, HIRU ABESBATZA DIRA EGUN ETA BAKOITZAREN FUNTZIONAMENDUA ETA HELBURUAK EZAGUTZEKO ERESARGI TXIKIKO ZUZENDARIA DEN NURIA CARBONELL ETA ERESARGI TXIKIKO LAGUNTZAILE ETA HELDUEN ABESBATZAKO PARTAIDE DEN SOFIA QUILEZKIN IZAN GARA.



SOFIA QUILEZ

28 URTE, BILLABONATARRA

ERESARGI TXIKI ABESBATZAKO LAGUNTZAILEA. ORAIN ARTE TEKNIKA ERAKUSTEA IZAN DA BERE ZEREGINA. ORAIN BERRIZ, I. AHO-TSA EGITEN DUTEN GAZTEKIN EGITEN DULAN.

HORREZAZ GAIN, HELDUEN ERESARGI ABESBATZAKO PARTAIDEA DA.

- Zein da egungo helduen Eresargi abesbatzaren egoera?

Helduen abesbatza krisialdian dagoela esan dezakegu. Hamabi urtetan aldaketa asko eta handiak izan dira eta ez gaude gure egoera onenean. Abesbatzan lau ahotsa lantzen dira eta soprano eta gizo-

nezkoen kopurua nahiko urria da; guztira hogeita hamar pertsonak osatzen dugu abesbatza. Azken aldian ditugun gabeziak direla eta ez dugu kontzertu eta irteera asko egin. Hori bai, gazte eta haurren abesbatzaren maila ona kontutan harturik, etorkizunera begira helduen abesbatzak hobera egingo duenaren itxaropena dugu. Hala ere, seguruenik, Billabonan egingo den Gabonetako kontzertuan hartuko dugu parte.

- Zein eskakizun bete behar dira helduen abesbatzako partaide izateko?

Ez da solfeorik jakin beharrik. Abesbatzako partaide izan nahi duen orori zabaldurik dago Eresargi abesbatza, izan ere, orain zenbait ahotsen gabezian gaude. Hori bai, abesbatzako partaide izateak, entsaioetara joan beharra suposatzen du, bestela ezin baita abestirik ikasi. Gainera, nire ustez, helduek ditugun bestelako betebeharrak eta eginbeharrengatik ez gaude ikasteko disziplina hain ohituta eta abestiak ikastea gehiago kostatzen zaigu. Gazteek errexago ikasten dutenaren ustea dut.

- Dirulaguntzarik izaten al duzu?

Orain arte Billabonako Udalaren dirulaguntza izan dugu baina federatu garenetik ez dugu dirulaguntzarik. Federazioaren

partaide izateak kuota bat ordaindu beharra suposatzen du. Hala ere, alde onak ere baditu, horien artean, abesbatzen arteko harremanak sendotu.

"HELDUEN ERESARGI ABESBATZA KRISIALDIAN DAGO EGUN. SOPRANO ETA GIZONEZKOEN KOPURUA NAHIKO URRIA DA"

ERESARGI AHOTSEN



Eresargi Txikikoak A. der Itto

federazioak antolaututako ikastaroetan parte hartu, atzerriko abesbatza eta bertako abesbatzen arteko elkartrukeak egin



NURIA CARBONELL

25 URTE, BILZELDONATARRA (A)OTZIEZ BAINA TOLOSAN BIZI DA

ERESARGI TXIKI ABESBATZAKO ZUZENDARIA ETA TOLOSAKO HODEIFERTZ ABESBATZAKO PARTAIDEA.

ABESBATZA TOPAGUNE



Victoria zuzendaria zuzendaria

- Noiztik zara Eresargi txiki abesbatzako zuzendaria?

Lan horretan hasi berria naiz. Hamasei urterekin hasita eta orain arte beste zenbait abesbatzetan lan horretan ibilia naiz lehenago ere, baina Eresargi abesbatzean oraintxe hasi naiz zuzendaria gisa. Horrezaz gain, fede-

razioak abesbatzeko zuzendariari zuzendutako ikastaro bat bukatu berri dut eta musika hizkuntza ikasten ari naiz Bilbon.

- Zenbat haurrek osatzen dute Eresargi txiki eta Eresargi ttipi abesbatzak?

Erasargi txiki eta ttipi abesbatzan, bakoitzean, 50 haur eta gazte dago. Erasargi txiki abesbatza 11 eta 16 urte bitarteko gazteek osatzen dute; Erasargi ttipi abesbatza berriz, 11 urte bitarteko haurrak. Abesbatza horien helburua, koruen, kantuen mundua ezagutaraztea da. Izan ere, abesbatzako kantuak elizako kantuak baino ez direnaren ustea oso zabaldua dago oraindik, eta errealitatea bestelakoa da. Gaztetxo-

enak konturatu dira hori ez dela egia eta nahiz eta disziplina bat jarraitu eta abesten ikasi behar duten, ez datoz behartuta eta oso gustora etortzen dira abesbatzara. Horrezaz gain, gazteen abesbatzetan giro ona izaten da eta aktibitate ezberdinetan duten partaidetza ikusita, gaztetxoek abesbatza maila oncan dagoe-la esan dezakegu.

**"ABESBATZAKO KANTUAK
ELIZAKO KANTUAK BAINO
EZ DIRENAREN USTE
OKERRA OSO ZABALDUA
DAGO ORAINDIK, ETA
ERREALITATEA GUZTIZ
BESTELAKOA DA"**

- Azken aldian kontzertu ugari izan dituzue, ezta?

Bai. Iaz adibidez Erretereriako lehiaketan bigarren saria lortu genuen eta Zumarrago lehiaketan entzulegoaren saria jaso genuen. Aurten, abenduaren 27an, Erretereriako lehiaketan hartuko dugu parte berriro. Iaz Erretererian saria jaso genuenek, hilaren 28an Victoria Eugenia antzokian abestuko dugu. Horrezaz gain, hilaren 30an Billabonan Cabonetako kontzertuan hartuko dugu parte. Urtarrilaren 4ean berriz, Astearura goaz. Errege egunean Billabonan egiten den kontzertuan ere abestea espero dugu, baina azken hori oraindik erabakitzeke dago.

- Nuria, zenbatero entsaiatzen dute gazteek?

Egia esan lansaiio gutxi egiten dugu. Gazteak eta ni neroni ere nahiko okupatuta gaude eta horregatik astean bitan baino ez dugu entsaiatzen. Astean behin, ahotsak ezberdinduz eta bakarka entsaiatzen dugu, lehen Fleming ikastetxea zen lokalean. Beste behin entsaiu orokorra egiten dugu, ahots guztiak elkarrekin eta entsaiu horiek Kultur Etxean egiten ditugu.

- Zuen ustez, nolakoa da Euskal Herriko abesbatzen maila?

Abesbatza ugari dago eta tradizio handiko herria garelako uste arren, urtero atzerritik datozen abesbatzek maila handia dutela erakusten digute. Izan ere, abesbatza horietako partaide asko profesionalak dira eta horrek maila igotzeko aukera handiagoa eskaintzen du.

OHARRA: 69. alean, "Iturri zaharretik edaten" izenburupeko elkarrizketan oker txiki bat ageri da. Taldeak dituen laguntzaileei dagokionez, Fermin Lizarraren ordean, Fermin Leizaola "Mintxo" izan dute laguntzaile.

SOTO
elektrizitatea
• ELEKTROGAILUAK
• MATERIAL ELEKTRIKOAK
Santiago kalea z/g. BILLABONA
☎ 69 11 73



**BORDA
Gatetxea**

Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN

☎ 59 28 60 Faxa: 59 36 91

MANUEL LARRAMENDI BAZKUNAREN V. URTEMUGA

Julian Lizardi asteasuar martiriari buruzko liburua aurkeztearekin batera ospatuko dute urtemuga

AZAROAREN BOSTEAN BETE ZITUEN BOST URTE MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK. 1992KO AZAROKO EGUN HOLTZARI KOLOREA EMAN ZION EUSKALTZALEEN BILGUNE IZANGO ZEN BETERRI-AIZTONGO MAILAKO KULTUR BAZKUNAREN SORKUNTZAK. EUSKALTZALEAK BILDU ETA EUSKALDUN KONTZIENTZIA INDARTU ETA ZABALTZEA DUTE HELBURU, ETA EGINBEHAR HORRETAN JARDUN DUTE AZKEN BOST URTEOTAN. AURRERANTZEAN ERE BIDE BERETIK JARRAITZEKO ASMOA DUTE, HAINBAT PROIEKTU ETA HAINBAT IDEIA ORAINDIK GAUZATZEKO BAITUTE. EGUN, ES-KUALDEKO 110 ESKULTZALE BILTZEN DIRA BAZKUNAREN BAITAN.



Andoaingo Urigain Kultur Etxean jaio zen Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Jaio eta berehala hasi zen ibiltzen, Beterri-Aiztondoko herrietara joan baitzen bere buruaren aurkezpena egitera hilabete gutxi zituela. Beren semetzat hartu zuten herri horietan Bazkuna, eta berehala non biziko zen erabakitzen hasi ziren. Andoainean ezarri zuten egoitza, eta lanbidea ere eman zioten: Aiurri aldizkaria argitaratzea izan da Bazkunaren lehen lana, eta noski, lanbide berriak hartu zituen hazten ari zen heinean. Saiakerak hasi zen Bazkuna eta bost urteotan hiru kaleratu ditu: Xabier Lasaren Manuel Larramendi andoaindarrari buruzkoa, Rikardo Arregi kazetariari buruzkoa eta Xabier Lasarena den "Gerra zibila andoaindarraren begietatik" liburua. Bidean da ere Asteasuko Julian Lizardi martiriari buruzko saiakera. Baina lan serio hauek egiteaz gain, kantatzen eta festan ere ibili izan dira Bazkunaren inguruan bildutako herrikeriak. Esate baterako, Santa Ageda bezperetan ezarriak urratu arte aritzen dira kantuan. Hitz egiten ere iaioak dira Bazkunkideak, antolatu dituzten hitzaldi, mahainguru eta tertuli kopuru altua da horren adibide. Ezin ahaztu Asteasuko Bazkunkideek herriko artisauen lanak eraskugai jartzeko antolatu zuten erakusketa.

Bazkunak, egun, "Lekukotzak" izenbu-

rupean gure kulturaren altxorak argitaratzen ditu noizean behin, gure herrietan abestu izan diren abestiak eta kontatu izan diren kontuak. "Beterriko liburua" literatur aipamena ere martxan duten ekimena da. Eta, ezin aipatu gabe utzi, Martin Ugalde idazle eta kazetari andoaindarrak omentzeko Bazkunak azaroan egin berri duen omenaldia.

EUSKALDUN KONTZIENTZIA HARTU BEHAR

Bazkunaren helburu nagusia euskaldunok gure izaeraren eta kulturaren kontzientzia har dezagun lan egitea da. "Gutxiago garelako sinestuta bizi da euskaldun asko, herri gisa gureak egin duela, besteen aldean gure kultura eta hizkuntzak arnas estua dutela. Arnas estua bai, baina hauspoari eragin nahi ez diogulako", adierazi digu Bazkuneko lehendakaria den Jon Unanuek. Egitura sendo bat izateko, Beterri-Aiztondoko euskaltzaleak biltzen dituen elkargunea da Bazkuna. "Egitura eta estrategia jakin bat behar dira, amets ez gain, gure kultura eta hizkuntzaren kontzientzia hartu eta horren alde lan egiteko", gaineratu digu.

Hori gauzatzeko proiektu asko dituzte buruan. Kultura ezberdinen arteko elkar harremanak bideratu nahi dituzte "Kulturen arragoa" izeneko ekimenarekin. "gurea ezagutarazteko eta besteena ezagutzeko". Telebista eta irratia egiteko ideia ere buruan darabilte, eta eskualde-

ko Internet zerbitzua kudeatzeko aukera beregain hartzekotan dira. Euskal kulturagintzak egoitza bat behar duela eta Izturizaga dorrea horretarako egoitza izan daitekeela uste dute, baita Iri-goienazpikoa euskal prentsa eta komunikabideen egoitza bihurtu daiteke ere. Baina, eta asmo askoekin gertatzen den bezala, asmo horiek aurrera eramateko baliabideak urriak dira: dirua eta lagunak behar dituzte hori guztia egiteko. "Horrek dirulaguntzen menpean funtzionatzera behartzen gaitu", ondorioztatu digu Unanuek.

Halere, itxaronpetsu agertu da euskaraz egiten den eskaintza handia ikusita, "nahiz eta masak hori ez kontsumitu, belaunaldi berriek bide horretatik jarraituko dutelako eta Euskal Herrian argitaratzen diren lanak euskaldunen esku daudelako".

OSPAKIZUNA HILAREN 26AN

Ospakizun sumea egingo du bere V. urtemugan Larramendi Bazkunak. "Xudurluzea" izeneko argitalpena kaleratuko dute Bazkunaren historia eta proiektuen berri emateko, "bazkideak informatu eta bazkide berriak egitea du helburu argitalpenak". Argitalpena Asteasuko Julian Lizardi martiriari buruzko liburuaren aurkezpen egunean aurkeztuko dute ziurrenik. Egun berean Joxe Arrutik eginitako tarta jango dute, kandlei putz egin ondoren.

ADUNAKO ASTE KULTURALA

Aretoa bete jende aste osoan zehar

HITZALDI, DIAPOSITIBA EMANALDI ETA MAHAINGURU INTERESGARRIAK, ETA BATEZ ERE ARRAKASTATSUAK, IZAN ZIREN ADUNAKO ASTE KULTURALEAN ESKAINI ZITUZTENAK.

AURRERANTZEAN ADUNA UEMAKO 32. KIDEA IZANGO DELAKO ANTOLATU ZUTEN ASTEA, OSPAKIZUN GISA. HALERE, ETA IZAN DUEN ARRAKASTA IZANDA, AURRERANTZEAN ERE ANTOLATUKO DUTE BEHARBADA ANTZEKORIK.

SENEGAL, FINLANDIA ETA SRI LANKA-KO HIRU EUSKALDUN

Kanpoan jaio diren hiru euskaldun etorri ziren Adunara euskaldunok nolakoak garen, Euskal Herrira nola etorri ziren eta euskaraz nola bizi diren azaltzera. Euskaldunak ote diren edo ez ez zen argi gelditu, "gure historia ez baita hemengo", baina euskaraz bizi direla eta Euskal Herria asko maite dutela argi eta garbi utzi zuten. Penaturik agertu ziren euskaldunok euskaraz gutxi hitz egiten dugulako, "hizkuntza da herriaren ondarea, zioten."

KOMUNIKABIDEAK HIZKUNTZAREN EREDU

Euskaldunon Egunkariako Martxelo Otamendi, Herri Irratiko Laxaro Azkune eta ETBko J.M. Otermin ere hurbildu ziren Adunara. Komunikabideetan erabiltzen duten euskara nahikoa eta kalitate onekoa ote zen eztabaidatzen aritu ziren luzaroan. Euskara erosoa erabili behar dela argi zuten, eta komunikabideetan lan egiten duten esatariak eta kazetariak euskararen eredu direla zioten. Belaunaldi berrien ardurakoa dela uste dute euskarazko komunikabiden geroa, "komunikabideetako euskara modernora ohituko



dira", eta egun dauden arazoak -filmeak euskaratzerako orduan, hizkuntz batasuna lortzeko garaian, e.a.- konpondu behar direla esan zuten. Azken 25 urteotan euskal komunikabiden inguruan lan asko egin dela zioten, nahiz eta oraindik dirulaguntzen menpean egon behar duten euskaldun kontsumitzaile nahikoarik ez dagoelako. Azkenik, euskal komunikabideen bitartez nazioa eraikitzen ari direla azpimarratu zuten.



ANDOAINGO UDALA



ANDOAINGO UDALA

HIZKUNTZ NORMALIZATZAILE BAT BEHAR DU ANDOAINGO UDALAK

Deialdiaren xedea:

Andoaingo Udalerako Hizkuntz Normalizatzaile bat "obra edo zerbitzu jakineko" lan hitzarmenpean lanegun partzialerako kontratatzea, Eusko Jaurlaritzaren 86/1997 Dekretuan aurreikusitako lehen plangintzaldiko lanetarako.

Oinarriak:

Interesatuen esku daude Andoaingo Udaletxean, Euskararen Normalkuntzarako eta Pertsonaleko Lansailetan, goizeko 9etatik 13,30 orduetara bitartean.

Eskaerak aurkezteko epea:

1997ko abenduaren 20rarte.

Andoain, 1997ko abendua.

ZIZURKIL

Gabonetako abeslariak 1960-70




Zatik ezkerretik eskuinera: Segundo Izagirre, Txomin Ordozgoiti, Pedro Galarraga, ezezaguna eta Martin Juansansoro.

Makurtuta ezkerretik eskuinera: Antton Zaldúa, Santi Usabiega eta Julian Lizarraga.

Ilonako mutil gazte talde hau kantari irteten zen urtero Gabonetan Zizurkilen. Lehen, gainera, eta bertan agertzen diren azaldu dituztenez, herriko gazte guztiak batera ibiltzen ziren ospakizun eta festa giroko ekintza guztietan. Ongi pasatzeaz gain usadioari heldzen zieten bidebalez, eta egun ere, bada oraindik horrelakorik egiten duenik. Halere, geroz eta urriagoak dira etxe etxe kantari ibiltzen diren lagunartak.

Oharra: Elxeke garbanu edota zapata kaxan sartuta eta engi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aurrin ikusi argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat ateratu eta zuen informazio jasetzeko. Eskerrik asko.



ALBA

ALBA

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten aseguru zozketatzen dugu!

Beterriko

Liburua

1997



JOKIN MUÑOZ

JOAN ZARETENEAN

Jokin Muñoz Trigo

Argitaletxea: Alberdania

Generoa: Nobela


Prezioa: 1.800

Orrialde kopura: 158

Jokin Muñoz Ebro ibaia eta trenbidea bat egiten diren Nafarroako Castejon herrian jaio zen 1963an. Irakasle eta Filologia ikasketak egin zituen Donostian eta egun Iruñeko "Miluze" euskaltegian irakasle lanetan dihardu. 1995an idatzi zuen "Hauturak" izenburupean bere lehen literatur lana.

Gaia: Alvaro, Helenaren senargai ohia, poliziak noiz atzemango zain dagoen unean dituen burutapen eta gogoeten isla da liburu honen kontaketa. Alvaro Helenari zuzentzen zaio iraganeko pasadizu eta gertaeren oroitzapenak gogorarazteko, ETAko partaide izateagatik eta Mikel izeneko lagun bati aterpea eskaintzeagatik noiz kartzelaratu zain dagoen unean. Alvaro eta Helenaren arteko harremanaren haustura eta etenaren zergatiak nahiz arrazoiak behin eta berriz azaltzen zaizkigu Alvaroren ahotan, pasarte eta jazotakoaren hurrenkera atzekoz aurrera kontatzen zaigularik. Alvarok atzerrira ihes egiten du burutu zuten atentatu baten osteko polizien zainketa eta kontrolak ekiditearren baina ziur dago, Mikel atxikotu zutenaz gero, bera ere laister harrapatuko dutela, eta hori dela eta, Helenak egunkarietan irakuri aurretik, jakinaren gainean jarri nahi du.

Liburua barne gogoeten bilduma eta erakustoki dela esango genuke, lehenengo pertsonan idatzita dago, protagonista den Alvarok berak kontatuta. Pertsonaiei dagokienez, Alvaro gazte ixila eta bakartia da, Koadroak margotzeari ekin arren oso gutxitan bukatzen dituen sasi margolaria. Helena, berriz, Alvaroren andregai izandakoa, koadrilarekin atera zalea da. Alvarorekin elkarbizi arren haren berezitasunak ezin jasanik harremana uztea erabaki zuena. Eta, azkenik, Mikel, bien lagun bat da. ETAko partaide eta atentatu baten erantzule, Alvaroren etxea babesleku hartuko duena, gerora atxilotu egiten duten arren.



Zailagoa egingo zaizue, beharbada, oraingo txoko hau zer den eta zein herrietako den asmatzea. Aldaketa handiak egin dituzte azkenaldian pareta hauek gordetzen edo habesten duten tokian. Aiurri goitik behera irakurtzeko ohitura baldin baduzue, behin baino gehiagotan irakurriko zenituzten aldaketa edo lan horien berriak. Pista moduan, Beterri aldean baino Aiztondo aldean dagoen herri bateko txokoa dela aurreratuko dizuegu. Eta hori bai, lasaitasuna eta bakea nahi duenak herri horretara joatea besterik ez du egin behar.

Oraingoan **Ernaitzak**, Andoaingo liburudendak, eskainiko du oparia: **"Zifrak eta letrak" izeneko joku** emango dio saritzat lehiaketan parte hartu, asmatu eta aukeratu izango den lagunari.

Beraz, badakizue erantzuna zein den argi baldin baduzue bidal ezazue eskutitza zuen izena, telefonoa eta erantzun zuzen jarri honako helbidera:

Doktor Huizi 15-1. eskubia, Andoain.

ERNAITZA

LIBURUDENDA

Euskal eta erdal literaturako azken nobedadeak, opariak eta oleoz margotzeko gaiak.

Zumea kalea, 2 - ANDOAIN Tel. 59 24 59

KAFE-TEATRO LEHIAKETA

ANDOAIN

Abenduak 12: Puppenherts estudio's taldearen "piskuetes" antzezlan. Kurkutz tabernan gaueko 22:30etan.

Abenduak 14: Daniel Perez eta Itxaso Gonzalezen antzezlan. Ganbara tabernan gaueko 22:30etan.

MUSIKA

ANDOAIN

Abenduak 18: Andoaingo Udal Musika Eskolako ikasleek eskainitako Gabonetako kontzertua. San Martin parrokiaren 20:00etan.

Abenduak 19: Musika eskolako teklatu orkestra eta musika mintzaira tailerreko ikasleen kontzertua. La Sallen arratsaldeko 19:30etan.

ERAKUSKETAK

ANDOAIN

Abenduak 20-28: Jaiotzen erakusketa Anbrosia Olabide egoitzan. (Ordutegia: astegunak: 18:00-20:00. Asteburua: 11:30-13:30 eta 18:00-20:00. Abenduaren 25a: 11:30-13:30).

HAUR ANTZERKIA

ANDOAIN

Abenduak 20: Titeres bocarica konpainiaren "Kukudrulu" izeneko txontsongilo emanaldia. La Salle antzokian arratsaldeko 18:00etan.

GAZTE ASTEA 97

Abenduak 26: 09:30etan: Eskupilota.
12:00etan: Frontenisa.
16:00etan: Ping-pong, dardoak, xakea, damak, tute eta mus ...

Abenduak 27: 10:00etan: Euskal jaiak Nafarroa enparantzan: buruhandiak, mitologia, txalaparta, musika, dantzariak, hankapaloak, argazki tailerra, herri kirolak ...
16:00etan: Orienting kurtsoa.

Abenduak 29: 09:30etan: Saskibaloia (3 lagunekoa).
11:00etan: Bideo tailerra eta zestapunta tailerra.
15:30etan: Altxorraren bila.
17:00etan: Futbolina.
18:00etan: Bideo foruma.

Abenduak 30: 10:00etan: Eskubaloia.
16:00etan: Antzerkia, musika, malabareak, grafitiak, karaokea, sarien banaketa eta zozketa.

Urtarrilak 2: 10:00etan: Arrantza tailerra.
16:00etan: Arrantza Leitzararen.

Urtarrilak 3: 10:00etan: Txirrindulari irteera.

HELDUEN HEZKUNTZA

ANDOAIN


Andoaingo Helduen Eskolak telefono eta fax zenbaki berriak ditu. Telefono zenbaki berria 304021 da eta faxarena berriz, 304145.

BESTE

ASTEASU

Abenduak 16: Txistorrada Lizardi etxean.

KOMIKIA



AURREZKIAREN FRUITUAK



Hormako erlojua egurrezko markoarekin.

175.000 prezia **7** hilerako
275.000 pta. 4 hilerako



Edalontzidun (1,5 l) Solac irabagailua.

175.000 prezia **12** hilerako
275.000 pta. 7 hilerako



Fagor lapiko azkarra (6 litro)
Gasa, Elektr., Vitro., Indukzioa

275.000 prezia **12** hilerako
450.000 pta. 7 hilerako



12 hilerako
525.000 pta. 12 hilerako

Zatuz Euskadiko Kutxara. Berehala jasoko duzu zure aurrezkien fruitua. Eta gogoan izan, eragiketa formalizatu eta gero, aukeratutako produktua gustatzen ez bazaizu, beste bat hartu edo eragiketa deusezteko aukera duzula.

Izakinak bukatu arteko eskaintza.

97ko
Udazken-Negua

Erantzun zuzena



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

NEGU HONETAN ABANTAIL HANDI BAT ESKEINTZEN DIZUGU

KIDEGAS-ek zerbitzu hobereana eskeintzen dizu, kualifikatutako profesionalekin, preziorik onenean.

Eta beste abantail handiaz

98-02-28 baino lehen onartzen baduzu gasa edo berogintza instalatzea, instalazioan deskontu batzuk eskeintzen dizkizugu:

GASA instalazioaren deskontua
15.000 pta.

BEROGINTZA instalazioaren deskontua
25.000 pta.

 **Kidegas. S.L.**

GASA ETA BEROGINTZA
GAS Y CALEFACCION



KONPROMEZURIK GABEKO
AURREKONTUA

¡DEITU! Etzaizu ezer kostatuko

900 121 775
BEZEROEN ARRETARAKO DOHAINIKO DEIA

1998KO PREZIO PUBLIKOAK ABONU ETA ZERBITZUAK

ZERBITZUA	PREZIOA
ABONUAK	
URTEKOAK	
Familiarra	21.300
Banakako adinduna	14.000
Banakako adingabea	8.800
SEI HILABETEKOAK	
Familiarra	12.700
Banakako adinduna	8.400
Banakako adingabea	5.300
BONIFIKAZIOAK	
%25 Jubilatuek	
Langabetuek	
Minusbaliatuek	
SARRERAK	
18 urtez gorakoak	530
18 urtez beherakoak	330
ERRESERBAK ETA ZERBITZUAK	
Pista ordua abonatuentzat	2.450
Pista herenaren ordua	925
Pista ordua abonua ez dutenentzat	4.700
Squash ordua	530
10 sesioko squash abonua	4.000
Arrate Pilotalekua /ordua	1.750
GORPUTZA ZAIINTZEKO ARETOA	
Sauna-Hidromasaje sesioa	500
10 sesioko abonua	4.000
Solarium sesioa	525
10 sesioko abonua	4.200
Solarium + Hidromasajea	725
Masaia	1.600

IKASTAROAK	IGERIKETA	BESTELAKO EKINTZAK
3 EGUN ASTEAN		
Ikasturte osoa	22.500	17.000
Ikasturte erdia	13.500	9.600
Hileko ikastaroak	4.000	2.800
2 EGUN ASTEAN		
Ikasturte osoa	17.500	12.200
Ikasturte erdia	10.500	7.200
Hiru hileko ikastaroak	8.400	—
Hileko ikastaroak	4.000	2.100
	(3-4 urtekoentzat)	
	2.800	
	(5 urtekoentzat)	

KIROLETAKO UDAL



PATRONATUA

ALLURRALDE POLIGONOA Z/G

Tfno. 30 01 47 • 30 01 54 • Fax: 30 01 30

ANDOAIN 20140

1998 urterako, abonoetan, sarreretan eta zenbait
zerbitzutan prezio bateratuak daude
Buruntzaldeako bost herritan
(Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil)

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!



BURUNTZALDEA

KIROL ZERBITZU MANKOMUNATUAK



Kirolatzen

KIROL EKINTZEN ANTOLAKUNTZA

TFNOA: (908) 773530

ALLURRALDE Kiroldegia

Tfnoa: 300 103

ALLURRALDE



KAFETEGIA

- Gosari bereziak
- Pintxoak
- Zorionetarako meriendak
- Kafea hartzeko girorik onena

ORDUTEGIA

08:00-12:45

15:00-24:45